

irri-solas


Mokanes ttipi

Bi fantasma paseatzen dira hondartza bazterrean:

Lehenak dio besteari:

- "Kasu! Zure gibelean, mokanes ttipi bat bada, segitzen **zaitu**!

- Eez! Lasai, ene semea da!"



Xerka dezagun

segitzen zaitu: **NORK** segitzen du **NOR**?

oroit

NOR-NORK motako aditza duten perpausetan, Nor eta Nork deklinabide-kasuak dituzten hitzak ageri dira gehienetan (batzuetan gorderik dira).

Nik (NORK) **zu** (NOR) karrikan ikusi **zaitut**.

Zuk (NORK) **ni** (NOR) karrikan ikusi **nauzu**.

NORK subjektua da edo ekintzaren egilea.

Fantasma ttipiak (NORK, subjektua) segitzen **zaitu** (NOR, zu, gordea).

Hona hemen **NOR-NORK** motako aditz zenbait: ikusi, ekarri, eraman, jarraitu, agurtu, maitatu, ...

NOR-NORK orainaldia

NORK/NOR	ni	hi	hura	gu	zu	zuek	haiek
NIK	X	haut	dut	x	zaitut	zaituztet	ditut
HIK	nauk naun	x	duk dun	gaituk gaitun	x	x	dituk ditun
HARK	nau	hau	du	gaitu	zaitu	zaituzte	ditu
GUK	X	haugu	dugu	x	zaitugu	zaituztegu	ditugu
ZUK	nauzu	x	duzu	gaituzu	x	x	dituzu
ZUEK	nauzue	x	duzue	gaituzue	x	x	dituzue
HAIEK	naute	haute	dute	gaituzte	zaituzte	zaituztete	dituzte

NOR-NORK iraganaldia

NORK/NOR	ni	hi	hura	gu	zu	zuek	haiek
NIK	X	hindudan	nuen	x	zintudan	zintuztedan	nituen
HIK	nindukan nindunan	x	huen	gintuan gintunan	x	x	hituen
HARK	ninduen	hinduen	zuen	gintuen	zintuen	zintuzten	zituen
GUK	x	hindugun	genuen	x	zintugun	zintuztegun	genituen
ZUK	ninduzun	x	zenuen	gintuzun	x	x	zenituen
ZUEK	ninduzuen	x	zenuten	gintuzuen	x	x	zenituzten
HAIEK	ninduten	hinduten	zuten	gintuzten	zintuzten	zintuzteten	zituzten

NOR-NORK kasuak ezagut eta erabil

1* Nor (kasu! Nor gorderik izan daiteke) **eta Nork kasuak dituzten hitzak azpimarra itzazu eta ondoan idatz.**

	NOR	NORK
Amak ni autoan ekarri nau.	<i>ni</i>	<i>Amak</i>
Ikasleak ikusi zaitu karrikan.		
Aitak besarkatu nau joan aitzin.		
Izebak gu parkera eramanen gaitu.		
Nik zineman ikusi zintudan.		

2* Gehitu NOR eta NORK kasuetako atzizkiak: -a, -ak, -ak, -ek.

- a- Ikastolako sukaldari..... salda bero..... prestatu du.
- b- Ikastolako sukaldari..... salda bero..... prestatu dute.
- c- Ohoin..... gazteluko altxor..... ebatsi zituzten.
- d- Ohoin..... gazteluko altxor..... ebatsi zuten.



3*Testua osa ezazu aditz hauekin:

ditugu nau zaitu du naute gaitu ninduten du nauzue nau

Gaur, arte irakasleak gu Bonnat Museora eraman eta han margolan anitz ikusi Ni, obra batek harritu.....bereziki. Emazte bat irudikatzen *Bainatzaile ttipia* izena Bizkarrez da, zu ez ikusten. Obra eder horrek, ni liluratuegiazki.

Lehen museoek aspertzen eta ez sinetsiko baina geroztik museoek zoratzen.....

4* Aditzak iraganaldian ezar itzazu.

- a- Nik biziki maite zaituztet/.....
- b- Eguberriko kantuak kantatzen ditugu/.....
- c- Aitak erasiatu nau/.....
- d- Goizero karrikan ikusten gaituzte/.....
- e- Beti agurtzen nauzu/.....

5* Gorderik diren NORK eta NOR kasuak idatz.

	NORK	NOR
Ez zaitugu hondartzan ikusi.	<i>guk</i>	<i>zu</i>
Oraindik ez gaituzu ontsa ezagutzen.		
Bakar-bakarrik utzi ninduzun oihanean galdurik.		
Otsoek beldurtzen naute.		
Urtebetetzera gomitatu gaituzte.		

6* Osa.

- a- Atzo ez Avironek jokatu partida ikusi. Zer egin?
- b- Ezagurtu nahi, ala? Nik zu beti agurtzen
- c- Nik zuek iazko oporretan ezagutu
- d- Haiek gu anitz maite
- e- Barda auzoko zakurrek zuek nardatu
- f- Atzo mago horrek harritu bere magia.